

LA CIUDAD SANA

El espacio público como
generador de salud y bienestar

HIRI OSASUNTSUA

Espazio publikoa osasunaren
eta ongizatearen sortzaile



2021EKO HIRIGINTZA TOPAKETEN LABURPENA

2021eko azaroaren 25ean, “Hiri Osasuntsua. Espazio publiko osasunaren eta ongizatearen sortzaile” izeneko topaketa egin zen Azkoienen. Topaketa hartan, gure herri eta hirietan hirigintza mailan gaintitu behar ditugun erronken gainean eztabaidatu eta hausnartzeko espazio bat sortu nahi zen, pertsonen osasuna hobetu eta, hartara, ekintza bateratuaren bidez gai hori jorratzeko, sektore instituzional guztien, agente sozialen eta agente ekonomikoen artean, pertsona guztien osasuna hobetze aldera.

Topaketa hartan, hiri plangintzan eta osasun publikoan lan egiten duten 3 hizlarik parte hartu zuten, azterketa eremu desberdinak baina osagarriak lantzen dituztenak. Beren begiradak laburpen honetan jaso dira, hiriaren osasunetik hasi eta udal plan baten tokiko izaeran amaitzeraino, osasunaren ikuspegia txertatuta. Laburpen hau izan bedi, beraz, hausnarketak, eztabaidak eta ekimenak pizteko tesuingurua.

Hitzaldien ondotik, parte hartzeko eztabaida egin zen. Bertan, hurbildu ziren pertsonen hiri espazio osasuntsuei buruz eztabaidatu, sakondu eta hausnartzeko aukera izan zuten. Eztabaida horretatik azpimarratu beharreko alderdiak gai zehatzen arabera bildu dira. Horren adibide dira

partaidetza, hiri handia vs hiri txikia, oinez ibiltzea edo klima aldaketa.

Hiriek eta hiri inguruek eragin oso garrantzitsua dute pertsonen osasunean eta ongizatean. Osasuna sortzeko orduan eragina duten hainbat alderdi daude, besteak beste hiri plangintza, hurbileko berdegune eta ekipamenduekin; pertsonak hirian zehar mugitzeko era; ingurumen kalitatea; adin desberdinek erabilera desberdinetarako erabil ditzaketen espazioen kalitatea; bai eta produktu osasuntsuen edo aisialdiko jardueren eskuragarritasuna ere.

Gaur egun, geroz eta hobeki ezagutzen dugu nola jarduten duten elementu horiek guztiek alderdi psikosozialen gainean **zuzenean, gure osasun fisikoan eta mentalean eraginik.**

Gure bizileku diren hiri inguruek osasuna eta ongizatea sor ditzaten, beharrezkoa da eredia aldatzea. Aldaketa hori dagoeneko martxan dago. Aldaketa saihestezin horretan, nahitaez ulertu behar da paradigma berri batean gaudela eta, beraz, hiri inguruek ez dietela erantzun behar beharizan zaharrei. Ondorioz, eredu aldaketa horretarantz jo behar da, herrietan eta hirietan esku hartzeko behar diren neurriak hartuz, herri eta hiriok osasuntsuago bihurtzeko.

JULIA DÍEZ

Testua: Orekari Estudioa

Gaur egun, Espainian biztanle gehienak hirietan bizi dira. Urte batzuen buruan, munduko biztanleen % 70 baino gehiago hiri inguruetan biziko dira. Gehien haziko diren hiriak txikiak eta ertainak izanen dira, besteak beste Iruñea eta haren metropoli ingurua. Hiriek osasunean duten eragina heterogeneoa eta askotarikoa da, faktore eta desberdintasun sozial ugariaren arabera. Hori dela eta, osasunean desberdintasunak sortzen dituzten gizarte baldintzatzaileak eta taldeen arteko desberdintasunak aztertu egin beharko lirateke. Ezinbestekoa da egoera aztertzea, haren gainean jardun ahal izateko. Izan ere, hiriak eragin positiboa edo negatiboa izan dezake pertsonen osasunean, eta, sarritan, osasunarekin lotzen ez ditugun politikak dira osasunean gehien eragiten dutenak. Ondorioz, sektoreen artean elkarlanean aritzea oso garrantzitsua da, betiere hiritarrak kontuan hartuta.

Hitzaldian aipatu ziren artikuluko interesgarriak:

La incorporación de la salud comunitaria en la planificación y la transformación del entorno urbano.

JOSE FARIÑA

Testua: Orekari Estudioa

Kontuan hartuta planeta agortzen ari dela, planetak sor ditzakeen baliabideak baino gehiago kontsumitzen ditugulako, hirietako eredia errotik aldatu beharra dago. Hiriko bizitza apurka-apurka suntsitzen joan da, eta, berreskuratzeko, atzean utzi behar da eginkizunak bereizten dituen eredia. Horren ordez, hiriek beti izan duten bizikidetzat bilatu behar da. Ibiltzeko pentsatutako hiria, oinezkoaren hiria, hurbileko hiria... izan behar da hiri espazio osasuntsuago bat bilatzean lortu nahi den eredia. Horretarako, beharrezkoak dira dentsitatea, konplexutasuna eta hurbiltasuna. Era berean, garrantzitsua da bizikidetzarako espazioak sortzea, espazio publikoa aktibatzea eta hurbileko hornidura berdeak aurkitzea. Eta, hori lortu nahi bada, inplikaturako politikariei esker sortutako hiri politikak egotea bezain garrantzitsua da erakundeek hiritarrak hezteko borondatea izatea, hiria ulertu ahal izateko. Aldatu egin behar da bizitzeko modua. Hiriaren diseinuak eta plangintzak aldaketa hori ahalbidetu dezakete, baina soilik inguru horietan biziko diren hiritarrei informazio eta heziketa egokia emanaz gero.

Hitzaldian aipatutako gida interesgarriak:

Hiri osasuntsuen Espainiako sarea.

Tokiko gobernuek garatutako esperientziei buruzko jardunbide onak, hiri osasuntsuagoak edukitzeko.

Andaluziako hiri plangintzako tresnek osasunean duten eragina ebaluatzeko eskuliburua.

Shangaiko adostasuna hiri osasuntsuei buruz.

Hacia Rutas Saludables. Guía para el diseño, implementación y evaluación de un Plan de Rutas Saludables.

Participar para ganar Salud. Guía Participación Comunitaria: Mejorando la salud y el bienestar y reduciendo desigualdades en salud.

Ciudad Urbanismo y Salud.

NÚRIA OLIVER

Testua: Orekari Estudioa

2016an, Vic-eko Hiri Antolamendurako Plana idaztean osasunaren gaia txertatu zen. Biztanleen bizi kalitatea hobetuko zuen hiri bat lortu nahi zen eta, horretarako, osasuna funtsezkoa zen. Bartzelonako Diputazioak, hiri espazio osasuntsuak diseinatzeko gida bat eduki arren, ez zuen ezer egin halakorik planifikatzeko. Ondorioz, Hiri Antolamendurako Planean harekin batera lankidetzan aritzea garrantzitsua zela iritzi zen. Vic-eko Unibertsitateko Osasun eta Gizarte Ikasketen Zentroa ere atxiki zen planera, jardunbide orokorrak ezartzeaz gain, egiten ziren ekintza horiek osasun adierazleetan nola eragiten zuten ebaluatu ahal izateko. Hirigintzako plangintza batek jorratzen dituen gai guztiez gain, Vic-en zeharkako 3 ardatz sartu ziren: osasuna, paisaia eta partaidetza. Osasunean, ekintzak/jarduerak zein ziren aztertu eta Hiri Antolamendurako Planean txertatzen ahal ziren ikusteaz gain, horiek osasunaren gainean izanen zuten eragina ebaluatzeko modua ere planifikatu behar zen. Horretarako, osasuna Hiri Antolamendurako Planeko, memoria sozialeko, etxebizitza eraikinen diseinu osasuntsuko eta etxebizitzaren erabilera eta mantentze lanetako (kudeaketa gaiak...) agiri guztietan txertatuta

egoteko ahalegina egin zen. Halaber, herritarren partaidetza ere gauzatu zen, biztanleen osasuna jarri baitzen helburu nagusien artean.

Hirigintza plangintzatik osasunera igarotzeko, lehenik eta behin hiri osasuntsuen 32 adierazle jaso ziren (Osasunaren Munduko Erakundeak biltzen dituenak). Hartara, hirigintzako determinatzaileak eta osasuneko adierazleak alderatu ziren, adierazle bakoitzean eragin gehien duten determinatzaileak zein diren jakin ahal izateko. Hiri Antolamendurako Planean aurreikusten ziren hainbat jarduera hautatu ziren, eta fitxa bat egin zen horietako bakoitzari buruz, ikusteko ea osasuneko zein determinatzailek zeukaten eragina eta zein ondorio posible izan zitzaizketen osasun fisikoan, ingurumenean eta orokorrean. Halaber, horiek gauzatzeko gomendio orokorrak ere jaso zituen.

Gaur egun, Vic hiri osasuntsuen proiektu europar batean barruan sartuta dago. Bertan, tresna eguneratuak garatzen ari dira, hirigintzako jardueren osasun adierazleak ebaluatu ahal izateko, eta, hala, ikusteko ea jarduera bakoitzak osasuneko zein determinatzailetan duen eragin gehiago edo zeinetan gutxiago.

Hitzaldian aipatu ziren artikulua interesgarriak:

Viceko Udal Plan Orokorra

Bartzelonako Diputazioko espazio publikoan osasuna ebaluatzeko gida

PARTE HARTZEKO EZTABAIDA

PARTE HARTZEA

Partaidetza hiri bat eta bertan bizi diren pertsonak hurbiltzeko tresna bat da. Ez soilik lortu nahi ditugun hiriak diseinatu eta eraikitzeko orduan duen parte aktiboagatik; aitzitik, hiri batekin lotutako alderdi ororen gaineko presakuntza eta informazioa ere eman nahi du, betiere ahalik eta aniztasun gehien txertatuz (adinekoak, emakumeak, haurrak, migratzaileak...).



“Udal Planean era batean edo bestean inplikaturik dauden kolektiboak dira gehien parte hartzen dutenak”.

“Parte hartze egokia lortzeko, aurretiazko hezkuntza ezinbestekoa da”.

“Interes hutsetik benetako partaidetzara igarotzen jakitea gakoa da”.

“Hiritarrak hasieratik direnean planaren parte, beharbada errazagoa da jendeak parte hartzea”.

“Osasunari buruz hitz egitean, pertsonen zuzenean eragiten dien gaia denez, jendeari gehiago interesatzen zaio parte hartzea eta gehiago inplikatzeko da hirigintzari buruz hitz egitean baino”.

“Plangintzako parte hartzea konplikaturik da, hiritarrek gai urruntzat jotzen baitute, haren emaitzak ez direlako berehala ikusten”.

PARTE HARTZEKO EZTABAIDA

OINEZ IBILTZEA

Ibiltzeko pentsatutako hiria, hiri eredua aldatzen saiatzeko eta inguru osasuntsuagoetara hurbiltzeko hiru alderdi gakoetako bat. Oinez ibiltzean, natura sartzen dugu hirian, eta topaketa, partaidetza eta hezkuntzarako egitura iraunkorrak bilatzen ditugu.

“Oinezkoaren hiria jarduerarik ohikoenak hurbil eta oinez joateko moduan dituen da”.

“Oinez ibiltzean, lotura sentikorragoa eduki dezakegu lurraldearekin. Ezagutzaren estrategia denez gero, arteen, hirigintzaren eta ingurumenaren artean loturak sortu behar ditu”.



“Ibiltzea, gertaera kulturala ere bada, ez soilik lokomozioko bitarteko bat”.

“Ibilaldiak parte hartzeko tresna izan daitezke”.

“Ibiliz gero, osasun fisiko eta mentala hobetzen duzu. Gainerako hiritarrek inongo topo egiteko eta harremanak ezartzeko modu bat da”.


“Ibilaldi kolektiboak osasuna dira, harremanak, bakardadearen galera. Teknologia berriak ibiltariak konektatzeko lagungarriak dira, taldeko ibilaldiak egiteko”.



PARTE HARTZEKO EZTABAIDA




HIRI HANDIA VS HIRI TXIKIA

Hiri, auzo edo herri bakoitzak bere estrategia eduki behar du. Horietako bakoitzaren eskalak eta dentsitateak zehaztuko dituzte hiri osasuntsuago bat lortzeko bidean jarraitu beharreko urratsak.



“Dentsitateari esker funtzionatzen dute tokiko merkataritzak eta ekipamenduek”.

“Hiri eredu sedentarioan bizi gara. Eredua aldatu behar da, gehiago mugitu behar gara”.



KLIMA ALDAKETA

Biztanleen artean kontzientzia piztu behar da arriskuaren garrantziaz, arrisku hori berehalakoa ez den arren. Hartara, hiritarrek plangintzan aldaketa eragiten ahalko dute, eta, epe luzean, baita klima aldaketan ere.

“Klima aldaketan bereizi egin behar dira egoerara egokitzeko neurriak eta egoera arintzeko neurriak. Egoerara egokitzeko neurriak dira ulertzeko eta geureganatzeko errazenak”.

“Zaila da jendeari ulertaraztea beroketa globalaren arriskuak, ez baita berehalako arriskurik antzematen”.

“Arauak ezarri behar dira klima aldaketaren ondorioak arintzeko”.



PARTE HARTZEKO EZTABAIDA

EREDU BERRIA, PARADIGMA BERRIA

“Aldaketa gertatuko da. Aldaketaren gaineko kontrola eduki behar da, ahalik eta pertsona gutxienez sufritzeko eta horren arabera jardun ahal izateko”.

“Ekonomikoki konplikatua da 70eko hiri eredua egokitu eta eraldatzea, hirigintzako esku hartze handien bidez”.




“Bizimodua eta hiri eredua aldatu egin behar dira”.

“Topaketarako espazioak sustatu, hiritarrek beren inguruaren erantzukizuna har dezaten. Hori funtsezkoa da”.

“Atzera egiteko aukera ematen duten jarduerak oso erabilgarriak dira eta kostu gutxiago dute”.

“Hirien eta hiri inguruen paradigma aldatzea ezinbestekoa da pertsonen osasuna hobetu eta planetako baliabideak mantentzeko”.

“Eredua eta ordenantzak aldatuz gero, aldaketa handiak lor daitezke hirietan”.



SUSTATZAILEA:

Nafarroako Gobernuko
Lurralde Antolamenduko
Zuzendaritza Nagusia.

LAGUNTZAILEA:

Azkoiengo Udala

**TOPAKETEN KODISEINUA
ETA KOORDINAZIO
TEKNIKOA**

Orekari estudioa
Nasuvinsa

HITZALDIAK**Julia Díez.**

*Epidemiologia eta osasun
publikoko doktorea. Alcaláko
Unibertsitatea.*

José Fariña Tojo.

*Arkitektoa, Zuzenbidean
lizentziatua, IEALeko teknikari
hirigilea, eta Unibertsitateko
katedraduna.*

Núria Oliver.

*Arkitekto hirigilea. Viceko
Udaleko plangintzako
teknikaria*

ANTZERKI BIDEZKO IBILALDIA**De improviso**

Antzerki inprobisazioko
konpainia.

PARTE HARTZEARI BURUZKO DATUAK

32	29	3
Aurrez aurreko bertaratzea	Emakumeak	Gizonak
78		
Streaming bisualizazioak		


Organizan · Antolatzaileak:



Colabora · Kolaboratzailea:



Coordinación técnica
y codiseño de los encuentros



OREKARI estudio